

Verdun, 1915eko  rrietaren 25ean

Ene maitea,

Pentsatzen d t bad z ela lan hanitx etxaltean, parka nezaz  ez beiniz hor zure lag ntzeko bena berehala arra jinen niz.

Gerla hau izigarri gogor da. Eg n oroz hil hanitx bada, eg n oroz ikusten d t odol hanitx, jenteak axal eta ez r dira ez beita ga za hanitx jateko.

Gure arroletan bada arratu hanitx ene lag n hilen jaten ari. Ene b r a zorriz fundi da eta lohiz beterik niz. Espero d t berehala  rrent ko dela. Min d t bihotzean eg n oroz behar beit t jente eho bena bortxat rik niz egitera. Entz ten d g  zartatze herotx hanitx eta jauzten diren jenteak zartatze horiengatik.

Egarrit rik niz, astean behin baizik ez d g  edaten ahal.

Bihar behar d t berriz frontealat joan. Arra gizon andana bat eho beharko d t. Ment raz gure lag n zombait hilen dira, espero d t ez direla hilen bestelan nihaur barat ko beiniz. Gerla Handi hontan, eg n oroz goizik jeikitzen gira eta ga an berant loak hartzen. Ez diz g  abantx  sekulan lorik egiten.

Parka nezaz  pentsatzen d t sofritzen ari zirela enegatik. Lotsa zira hilen nizala. Lan hanitx bad z  haurrekin, alorretan, kabalekin, etxaltean bena berehala arra jinen niz z en ikustera eta lag ntzera. Indarts  niz ez beitz t et z  eta haurrak z haurek  tzi nahi.

Pott handi bat egiten deiz et z ri eta haurrer, izigarri maite z t et

Arnaud Otsogorriborda Margaita
Otsogorribordarentako

Verdun, 1915eko martxoaren 17an

Margaita,

Egün hon, nola zira ? Ni hola, hola...

Gerla Handian gütüzü eta arroiletan gira. Ez da ejer, oro gaztaina-kolore düzü, ebia ari da ordüan lohi hanitx bada. Badügü lohi, nonahi : biloetan, eta korpitz osoan.

Bizimoldea izigarri gogor da : ez gira xahatzen ahal, ez dügü lo egiten - lotsa beigira alemaniarrek zartagailü bat igorriko deiküela -, ez dügü hanitx jatekorik eta egarri gira. Norbait hiltzen delarik, arratuek jaten deioe korpitza eta horrek ürrin gaxto bat ekarten dü.

Joan girelarik alemaniarren kuntre güdükatzera, lehen herrokan nintzan bena orai bigerrenean nüzü.

Badüt lagün bat hil dena barda eta orai ez da haboro deus ere baratzen bere korpitzetik.

Ez düt maite arroiletako bizia : maiteago düt etxenko ohea. Presan nüzü sartzea, zure бүрүа arra ikusteko. Ez düt maite gerla, ez da ontsa, bena maleruski lehen urtea baizik ez düzü igan infernü hau hasi zenetik.

Arra izkiribatüko deizüt, zure gütün bat ükenen düdalarik.

Laster arte, maite zütüt !

Arnaud ♥

1915eko abentüaren 12-a

Ene maitea,

Ez da egün hona enetako heben gaizki da bizitzea hilak badira, hil sobera. Ez dakit haboro lürra zer kolorekoa den... heben pürü gorri da. Lohiz beterik gira.

Arroiletan arratoak badira korpitz hilen jaten ari, bena ez dütüe mankatürük direnak baizik jaten. Hil ürrinari pentsatzeak berak, goiti-ürtukitzeko ibea emaiten deit. Allande, ni bezala gerlalat jon den anaia ; espero düt orano bizirik dela.

Jateko ogi bat badizügü hilabete batentako eta hur butila ttipi bat.

Bihar hilabete batentako joanen nüzü fronteala.

Ez dakit gütün hori ükenen düzünez uste beitüt gütünak soginik direla. Espero düt halere gütün hau ükenen düzüla abantxü bera igorri beitüt düala hiru hilabete eta pentsatzen beitüt ez düzüla üken.

Bihar ala etzi, balinba, hilik nükezü bena jakin ezazü maite zütüdala, zü Margaita, ene betiko emaztea, bai eta gure haurrak eta ene aitetamak.

Arnaud Otsogorriborda

Gütüna

Ostegüna

Egün hon Margaita maitea. Egün, gibelean egon gira hartakoz idazten deizüt gütün hau. Egüerdi da, ene ogi puzka jan berri düt. Bihar arroiletako lohian lotüko gira hil ürrin batekin. Segür ere azken gütüna düt idazten. Bihar joanen gira aitzina. Gerlan ez da dretik düdatzeko bestelan arma kaldü bat biltzen düzü bi begien artean.

Ostiralea

Egün fronteatat joan gira eta soldadoen erdia hil da. Idazteak kontsolatzen naï jakitez lagün hanitx hil direla egün. Ez dakigü non giren, ez eta ere norat joaiten giren. Uste düt alemanak bost edo sei metretan direla. Arratuak hor dira ene aitzinean norbaiten jaten ari. Oren erdi baten bürüan, gizon horrek hezurrak baizik ez dirateke agerian.

Neskenegüna

Espero düt irus zideela ni ez beiniz irus batere. Kolpatürrik diren jenteekin niz. Hor pürü ez düt gerla egiten. Zartagailü bat kantüan zartatü zait ordüan korpitz osoan kolpatürrik niz. Bedeziak erran deit bihar ahalko nintzala elkitzen gerlalat arra joaiteko. Ez niz izigarri kontent bena hola egin behar da. Gerlan hola iragaiten da : edo hiltzen zira, edo izigarriko xantza badüzü eta bizirik arrajiten zira etxerat.

Igantea

Margaita, banakizün gerla infernüa zela bena ez nakizün halako baldintzak zirenik : Ürrin gaixtoa, arratuak hilen jaten, lohia, hiltzeko lotsa... Nik pürü izigarri gaixki bizitzen dit. Fronteatat arra joan niz. Armadako ospitalean edo frontean ber gaüza da. Espero düt jüsto ez nizala hilen, ez beitüt merexitü. Gük ez dügü deüs ere galtegin. alemanek ere ez. Hori oro lür historia batengatik !

Arnaud Otxogorriborda

Venden, 1915ko agorrilaren 24 a

Margaita ene maitia,

Idazten deizüt gütün hori erraiteko nola bizi nizan heben : arroiletan.

Izigarri mehatü niz eta gose niz! Heben hil hanitx ikusten düt eta egün oroz jeikitzen nizalarik kontent niz egün orano bizi beiniz. Badakit egükitzen düzüla arrajin nadin bena ez da hainen aisa. Ez dakit haboro zer den arropa xahüen ükeitea edo oski xahü eta ederren ükeitea. Izigarri zikin niz eta egiazko duxa baten hartzeaz amets egiten düt...

Frontean ere ez da beti aisa. Izigarri gogor da, bortxatürrik gira ehaitea gure bürüen salbatzeko. Ez düt maite posizione hori bena hola da.

Min düt bizkarrean betik kanpoan eta lürrean lo egiten beitügü. Min düt ere zankoetan betik ebiltan ari beigira. Hilak eta bizi direna oro botitürrik gira arroiletan sagü eta zorriekilan. Izigarri gogor da bena behar düt segitü bestelan hilen niz !

Espero düt letera hori errezebitüko düzüla. Jakin ezazü orai eta betik pentsatzen düdala zuri ordüan adio eta berriz arte espero düt...

Arnaud

Verdun, 1915 urtarilaren 28a

Ene maitea,

Egün hon ene maitea. Lehenik parka ez beitüt üsü gütünik igorten. Heben, bizia izigarri gogorra düzü eta ez düt sobera denborarik idazteko. Gerla hori izigarri bortitza düzü eta arroiletan bizia gogor da. Hilan artean egoiten nüzü, lohiz fundi gütüzü, ez dizügü hanitx jaten, ordüan, larrüa eta hezurak baizik ez dira baratzen gure korpitzetan. Arratuek hilak jaten ditizüe eta gü, kantüan, beti tiratzen etsaien kontre...

Gerla hori izigarri basa düzü eta gezür bat erranen neizün erraiten banü ez nizala lotsa frontealat joaiteaz... Egün oroz arriskü handiak hartzen ditizügü ! Bizi baldintzak izigarri txarrak dira, güti jaten dizügü, güti lo egiten eta ez gütüzü ahal xahatzen. Lagün güti badüt, hola ahal balinbadütüt izendatzen, egün oroz guretarik bat hiltzen ahal beita.

Bestelan, espero dit zü, gure haurrak eta familia güzia ontsa zideela. Gerla hori berehala ürrentürik dükezü eta zale etxerat sartüko nüzü. Gure biziak lehen bezala segitüko dizügü eta irus biziüko gütüzü. Memento hori egün oroz egürkitzen dit...

Hanitx maite zütüet, laster arte,

Zure senarra